

KRISTAU ESKOLAK ETA AICE-IZEAK BATZORDE PARITARIOAREN FUNTZIOA BLOKEATZEN DUTE

EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen Hitzarmen Kolektiboaren 7., 8., 9. eta 10. artikuluek Batzorde Paritarioa arautzen duten oinarriak ezartzen dituzte. Batzorde horren eginkizunen artean, hitzarmena aplikatzea eta interpretatzea dago, baita bide judizialaren aurretik esku hartzea gatazka kolektiboa sortzen den kasuetan, interpretazioari dagokionez.

STEILASek Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalak batzorde horretan, azkenengoa otsailaren 3an, behin eta berriz hitzarmenaren irakurketa interesatu eta subjektiboa eginez eta ikastetxeetatik datozen galdera errezenei erantzunik eman gabe utziz erakusten ari diren blokeo-jarrera salatu nahi du.

Gehienetan ordezkariak egiten dituzte galderak ikastetxearen titularrak hitzarmena behar bezala aplikatzen ari den argitzeko eta Batzorde Paritarioari erantzun bat emateko eskatzen diote. Batzordean akordiorik lortu ezean, langileen ordezkariak egoera judizializatu beste biderik ez dute, gatazka kolektiboak abian jarriz.

STEILASen iritziz, Kristau Eskolak eta Aice-Izeak Batzorde Paritarioan duten jarrera onartezina da, ikastetxeetan gatazkak areagotzen ditu eta kasu askotan judizializazioa eragiten du. Horregatik, dei egiten diegu Kristau Eskolari eta Aice-Izeari Batzorde Paritarioan dituzten betebeharrak bete ditzaten, hitzarmena objektiboki interpretatu dezaten eta, horrela, ikastetxeetan beharrezkoak ez diren gatazka asko saihestu ditzaten.

Irakaskuntzan, STEILAS

www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus

KRISTAU ESKOLA Y AICE BLOQUEAN LA FUNCIÓN DE LA COMISIÓN PARITARIA

Los artículos 7, 8, 9 y 10 del Convenio Colectivo de Centros de Iniciativa Social de la C.A.V. establecen las bases que regulan la Comisión Paritaria. Entre las funciones de dicha Comisión, está la de aplicar e interpretar el Convenio, debiendo intervenir con carácter previo a la vía judicial en los casos en los que se plantea un conflicto colectivo en relación a su interpretación.

STEILAS quiere denunciar la actitud de bloqueo que vienen mostrando las patronales Kristau Eskola y Aice-Izea en dicha Comisión, la última celebrada el pasado 3 de febrero, donde constantemente realizan interpretaciones interesadas y subjetivas del Convenio para NO dar respuesta a las cuestiones más sencillas que llegan desde los centros.

La mayor parte de estas cuestiones están planteadas por las/los delegadas/os que consideran que el/la titular del centro no está aplicando correctamente algún artículo del convenio y piden a la Comisión Paritaria que se posicione. Al no llegarse a un acuerdo en la Comisión, las/los representantes de las/los trabajadoras/es no tienen mas remedio que optar por la vía de la judicialización, poniendo en marcha conflictos colectivos.

Desde STEILAS consideramos que la actitud de Kristau Eskola y Aice-Izea en la Comisión Paritaria es inaceptable, aumenta la conflictividad en los centros y provoca la judicialización en muchos casos. Por ello, hacemos un llamamiento a Kristau Eskola y Aice-Izea para que cumplan con sus obligaciones en la Comisión Paritaria, interpreten de forma objetiva el Convenio y eviten así muchos conflictos innecesarios en los centros.